## GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**1286**

**Kanpamendu, udaleku eta auzolandegietarako deialdia**

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko martxoaren 29an, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Bertan xedatutakoarekin bat etorriz, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2011ko otsailaren 28ko bileran, onetsi egin du kanpamendu, udaleku eta auzolandegietarako 2011ko deialdia.

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Egun osoko koloniak edo haurren eta gazteen kanpamenduak eta haurrentzako eta gazteentzako auzolandegiak antolatzea, baldin eta jarraian 5 gau egin behar badira. Horietan guztietan, auzolandegietan izan ezik, 10 lagunek parte hartuko dute, begiraleez gain. Parte hartzaileek 7 urte izan beharko dituzte, gutxienez. Uda sasoian eta eskola orduetatik kanpo egin beharko dira jarduerak.

Eusko Jaurlaritzaren 170/1985 Dekretuak, haurren eta gazteen kanpamenduen, udaleku irekien, auzolandegien eta ibilaldietako kanpaketen erregimena arautzen dituenak, xedatutakoa beteko dute jarduerek.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira eskola eta kirol jarduerak.

Ez dira diruz lagundu beharreko gastutzat joko ez obrak egiteak, ez eta material inbentariagarria erosteak sortutako gastuak ere.

**2.- Erakunde onuradunak**

Gazteei zerbitzuak ematen dizkieten gazteen elkarteak eta erakundeak, irabazteko xederik ez badute eta egoitza eta jarduera eremua Araban eta Trebiñuko Konderrian badute.

**3.- Eskaerak aurkeztea**

Programa honen urteko maiatzean.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

- Jardueraren zuzeneko arduradunaren aisialdiko zuzendari tituluaren fotokopia.
- Kanpamenduaren, udalekuaren edo auzolandegiaren kokapen planoa eta kokapenaren deskribapena.
- Jarduera egiteko baimena, autonomia erkidegoak, zeinetan jarduera egingo den, emandakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoa izanez gero, jardueraren jakinarazpena aurkeztuko da.

**4.- Aurrekontua eta dirulaguntzen zenbatekoa**

Programa honi hirurogei mila euro (60.000 euro) esleitu zaizkio, eta 2011ko aurrekontuko 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 partidaren kontura ordainduko dira.

Aurrekontuko zuzkidura hau oinarritzat hartuta, zenbateko bat emango da pertsona eta eguneko, erakunde eskatzaile guztien artean.

Egun osoko udalekuek, gaurik eman gabe, diru kopuru horren ehuneko 40ko dirulaguntza jasoko dute.

Kanpamenduak antolatzen dituzten erakundeei eguneko eta pertsonako eman beharrekoa baino ehuneko 20 gehiago emango zaie dirulaguntza gisa. Jarduerak dirauen bitartean, bizi ahal izateko, zerbitzu guztiak (lotarako, sukalderako, jangelarako... kanpin-dendak) instalatzea beharrezkoa duen zelai batean garatzen den jarduera joko da kanpamendutzat.

Jarduera egin eta 6. puntuan adierazten diren agiriak aurkeztu ondoren jakinaraziko da dirulaguntzaren zenbatekoa. Salbuespenez, erakunde onuradunak eskaera arrazoitu bat egiten badu, konturako aurrerakinak eman ahal izango zaizkio.

**5.- Balorazio Batzordea eta ebazpena**

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eratuko dute:

- Gazteriako teknikari bat
- Zerbitzu Orokorretako burua
- Idazkaritza Teknikoko burua

## INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

**1286**

**Convocatoria para Campamentos, Colonias y Campos de Trabajo**

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud aprobó con fecha 29 de marzo de 2010 las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Instituto Foral de la Juventud.

De acuerdo con lo dispuesto en las mismas, el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud, en la reunión de fecha 28 de febrero de 2011 ha aprobado la convocatoria para Campamentos, Colonias y Campos de Trabajo para el año 2011

**1.- Objeto de la subvención**

Organización de Colonias de día entero o Campamentos infantiles o juveniles y Campos de Trabajo en la que participen niños/as y jóvenes, con una duración mínima de 5 noches consecutivas y en todos los casos, a excepción de los Campos de Trabajo, con 10 participantes excluidos los y las monitoras. La edad mínima de los y las participantes será de 7 años. Las actividades deberán desarrollarse en la temporada estival y fuera del horario académico.

Las actividades se tendrán que ajustar al Decreto 170/1985 del Gobierno Vasco por el que se regula el régimen de campamentos, colonias abiertas, campos de trabajo y marchas volantes infantiles y juveniles.

Quedan excluidas de esta convocatoria las actividades de carácter académico y deportivo.

No se consideran gastos subvencionables los derivados de la realización de obras y de la adquisición de material inventariable.

**2.- Entidades beneficiarias**

Asociaciones juveniles y entidades prestadoras de servicios a la juventud, sin ánimo de lucro, que tengan su sede y desarrollen sus actividades en Álava y Condado de Treviño.

**3.- Presentación de las solicitudes**

Durante el mes de mayo del ejercicio a que se refiere el programa.

La solicitud deberá acompañase de:

- Fotocopia del Título de Director o Directora de Tiempo Libre responsable directo de la actividad.
- Plano de localización y descripción de la ubicación del Campamento, Colonia o Campo de Trabajo.
- Permiso para la realización de la actividad extendido por la Comunidad Autónoma donde se ubique el mismo.

En el caso de la Comunidad Autónoma Vasca se presentará la Comunicación de Actividad cumplimentada.

**4.- Disponibilidad presupuestaria y cuantía de la subvención**

La cantidad asignada a este programa asciende a sesenta mil euros (60.000 euros) con cargo a la partida 71.1.00.10.00.4.6.1.00.01 del presupuesto de 2011.

Sobre la base de esta dotación presupuestaria se concederá una cantidad por persona y día entre todas las entidades solicitantes.

Las Colonias de día entero sin pernoctación se subvencionarán con el 40 por ciento de dicha cantidad.

A las entidades que organicen campamentos se les subvencionará con un 20 por ciento más de la cantidad resultante por persona y día. Se entiende por campamento la actividad que se desarrolla en una campa en la que es necesario montar todos los servicios para vivir esos días: tiendas de campaña para dormir, cocina, comedor.. etc.

La comunicación del importe de la subvención se efectuará con posterioridad a la realización de la actividad y a la presentación de la documentación que se indica en el punto 6. Excepcionalmente, se podrán conceder anticipos a cuenta, previa solicitud razonada por parte de la entidad beneficiaria.

**5.-Comisión de Valoración y Resolución**

Las solicitudes serán examinadas por una Comisión de Valoración compuesta por las siguientes personas:

- Un Técnico o Técnica de juventud
- La Jefa de Servicios Generales
- El Jefe de Secretaría Técnica

Batzorde horrek emakida proposamena idatziko du, eta Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak ebatziko du eman ala ez. Horretarako hiru hilabete izango dira, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzendaritzaren ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluari.

**6.- Erakundearen betebeharrak**

Programan, parte-hartzaile kopuruan, jarduerak gauzatzeko lekuan edo egunetan egon daitekeen edozein aldaketa jakinaraztea.

Aurrekoa ez betetzeak edo horretan berandutzeak dirulaguntza osoa galtzerainoko ondorioak ekar ditzake.

- Honako hauek aurkeztea 2011ko irailaren 23ko 14:30erako, Gazteriaren Foru Erakundean:

• Jarduerari buruzko datu errealak egiaztatzen dituen inprimaki ofiziala, behar bezala beteta.

• Parte hartzaileen izenaren zerrenda eta jarduera hastean duten adina.

• Jardueraren memoria.

• Gastuen eta diru sarreren balantzea

• Gastuen zerrenda.

• Elkartearen edo dirulaguntza jaso duen erakundearen izenean eman diren jatorrizko fakturak edo ordainagiriak, jarduerak egiteak eragindako gastuen zenbateko osoa adierazita.

• Aitzitik, 300 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

• 100 euro baino gutxiagoko fakturetan, datu hauek jasoko dituen gastuen justifikazio erraztu bat egingo da: data, hornitzailea, kontzeptua eta zenbatekoa.

Gazteriaren Foru Erakundeak laginketa bidez eskatu eta egiaztatuko ditu egoki irizten dituen frogagiriak, nahitaez aurkeztu behar ez direnak; horretarako, hautatutako gastuak bidaltzeko eskatu ahal izango da.

Era berean, ez dira onartuko ordain frogagiri gisa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen arloan zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagirien jatorrizko agiriak eskatuz gero, zigilu marka jarriko zaie, eta bertan dirulaguntza, zeina justifikatzeko aurkeztu diren, agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egozten zaion ere.

Azken kasu horretan, dirulaguntza xede den zatiaren zenbateko zehatza ere adieraziko da.

Dirulaguntza eman duen ebazpenak zehazten duen beste edozein agiri.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 28a.– Zuzendari-kudeatzailea, EDURNE RAMÓN OLANO.

Esta comisión redactará un informe de propuesta de concesión y la Directora-Gerente del Instituto Foral de la Juventud resolverá concediendo o denegando la solicitud en el plazo máximo de tres meses a partir del día siguiente a la fecha de finalización del plazo de la presentación de solicitudes.

Contra la resolución de la Dirección cabrá recurso ante el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud.

**6.- Obligaciones de la entidad**

Comunicación de cualquier variación que se produzca respecto de lo programado, del número de asistentes, del lugar o de las fechas de realización.

Su incumplimiento o retraso podrá ocasionar hasta la pérdida total de la subvención.

- Antes de las 14:30 horas del 23 de septiembre de 2011, presentación en el Instituto Foral de la Juventud de:

• Impreso oficial, debidamente cumplimentado, certificativo de los datos reales de la actividad.

• Relación nominal y edad al comienzo de la actividad de todos y todas las participantes.

• Memoria de la actividad.

• Balance de gastos e ingresos.

• Relación de gastos.

• Facturas o justificantes de gasto originales extendidos a nombre de la asociación o entidad subvencionada, por el importe total de gastos correspondiente a la realización de las actividades.

• En los supuestos de facturas de gasto superiores a 300 euros, se deberá acreditar que se ha efectuado el pago de las mismas.

• En los supuestos de facturas de gasto inferiores a 100 euros, se hará una justificación simplificada de los gastos donde consten los siguientes datos: fecha, proveedor, concepto e importe.

El Instituto Foral de la Juventud podrá solicitar y comprobar, a través de técnicas de muestreo, los justificantes que estime oportunos de los cuáles no hubiese sido obligada su presentación, pudiendo requerir la remisión de los gastos seleccionados.

No se admitirán como gastos justificativos, aquellas facturas y/o recibos que no cumplan con la normativa fiscal en materia de retenciones a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

En el caso en que la entidad requiriera los originales de las facturas o comprobantes de pago presentados, éstos se marcarán con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención.

En este último caso se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

Cualquiera otra documentación que determine la resolución que ha concedido la subvención.

Vitoria-Gasteiz, 28 de febrero de 2011.– La directora-gerente, EDURNE RAMÓN OLANO.

## GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**1287**

### Materialetarako deialdia

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko martxoaren 29an, onetsi egin zituen Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

Bertan xedatutakoarekin bat etorriz, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2011ko otsailaren 28ko bileran, onetsi egin du gazte eta aisialdi elkarteentzako materialetarako 2011ko deialdia.

**1.- Deialdiaren xedea**

Material ez inbentariagarria erosteko dirulaguntzak, baldin eta horietako bakoitza ez bada mila euro baino gehiago.

Gehienez ere 5 unitate, 100 euro baino gehiagokoa bakoitza, eskatu ahal izango ditu elkarte edo talde bakoitzak.

## INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

**1287**

### Convocatoria para material

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud aprobó con fecha 29 de marzo de 2010 las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Instituto Foral de la Juventud.

De acuerdo con lo dispuesto en las mismas, el Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud, en la reunión de fecha 28 de febrero de 2011 ha aprobado la convocatoria para material dirigida asociaciones juveniles y de tiempo libre para el año 2011.

**1.-Objeto de la convocatoria**

Ayudas económicas para la adquisición de material no inventariable cuya unidad no supere el coste de mil euros.

Se podrán solicitar un máximo de 5 unidades por asociación o grupo y de importe superior a 100 euros cada una.